BIKOTEA ERALDATUZ • IRRI SORTA • KLIMA ALDAKETA, GIZA-ERAGINAREN ONDORIO

KALARUTXA

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2016ko urtarrila 157. zenb.

SAIOA R. ELEZGARAI

Ikertzea pasio dudalako nago honetan

NIRE "TXOKORA" BUELTATU NAIZ BETIKO (Mikel Arrasate) • SAN ANTON, BIXIGUA MONTON

MATRIKULALDIA ZABALIK

Izena emateko epea
Otsailaren 5era arte

Etor zaitez eta informazio guztia emango dizugu

LUARDO ETXEA
Sabanika aldapa, 4
MUTRIKU

Tel.: **943 60 30 94**

udaleuskaltegia.mutriku@debabe.eus

Igualatorioarekin
eta
Osakidetzarekin
lan egiten
dugu

Audioprotesista
egunero dago
zentroan

Audiometriak
doain

Optika Vitoria
OPTIKA -- AUDIFONOAK

Iparkale 1 - Ondarroa
Tel. 946 134 138
mvitoria@cnoo.es
www.optikavitoria.com

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Mutrikuarrak erbestian	10
Sexuenea	11
Karenka	12
Kirola	14
Lapazorrikeixak	16
Aisialdia	18
Zero Zabor	19
Zorion agurrak	20
Argazki zaharra	21
Agenda	22

Kalaputxik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen-iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa
635 748 393

e-maila
kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com

Bloga
kalaputxi.blogspot.com

Laguntzailea
Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
I.Andonegi, J. Larrañaga, N. Ageitos Urain, EMA, Txantxangorri, Bai Txo!.

Tirada
2.200 ale

Lege Gordailua
SS-787/01

ISSN
1579-4792

Inprimategia
EUSKALINPRI. Deba

Banaketa
Kalaputxi

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara

iritzixa

URTERO BERDIN. EZ, AURTENGOAN, EZ

Urte Berri On!

Hasi dugu 2016a eta berarekin batera ekintza berri ugari ere iritsi dira edota etorriko dira. Besteak beste, dagoeneko Donostia Europako Kultur Hiriburua da, abuztuan Brasilen joko olinpikoak izango ditugu (bertaratuko diren euskaldunei zorterik onena opa diet), txinatar egutegian, aurtengoa, tximinoaren urtea izango omen da eta gurean, estreinakoz, urriaren 7a jaiegun izango da. Ezin ahaztu bisurtea ere badela, 366 egun! eta aipatu gabe utzi dudan zerrenda luze-luze bat.

Hala ere, badago zerrenda bat, urteak joan eta urteak etorri, beti berdin, aldaketarik gabe irauten duena; intentzio edota asmoen zerrenda, alegia.

Gaur bertan lagunekin kafe bat hartzen ari nintzela atera den gaia horixe bera izan da, ze asmo dituzue 2016rako? Urte berri batean sartu ordurako gehienok egiten dugun ariketa izaten da hori, infinitura begira jarri eta halako, besteko, hau, hori, hura eta guzti horiek egingo ditut 2016an! Kirola egiten hasi eta dietan jartzea finkoak izaten diren intentzioak dira. Zergatik ote? Osasunagatik? Besteengana eder azaltzeagatik? Hori beste baterako utzi dezakegun gaia izan daiteke.

Erretzeari uztea ere zerrenda askotan azaltzen den intentzioa izaten da. Baita ingeleseko tituluren bat ateratzea ere, beste hizkuntzaren batekin hastea, aspaldi utzitako ikasketei heltzea, bidaiatu eta herrialde berriren bat ezagutzea eta “bikotea bilatu-aurkitu-mantentzea” idazten duenik ere bada. Eta 2016rako antolatuko diren ekintza berri ugari aipatu gabe utzi ditudan bezala, hemen ere milaka asmo geldituko zaizkit aipatzeke.

Baina azkenean, intentzio horietako asko 2017rako asmoak izaten geldituko dira. Kiroldegian izena eman bai, eta kirola egiten hasi?, erretzeari uzteko eguna jarri bai, baina utzi?, ingeleseko titulua ateratzeko akademian izena eman bai, baina ikasi?

Nik ere atera dut kajoitik nire zerrenda, baina uste dut zakarretara botatzeko garaia iritsi dela. Zergatik? Azken bi urteetako zerrenda berbera delako. Topikoz betetako zerrenda? Agian, bai; baina idatzitako asmo bakoitzari dagokion garrantzia emateko garaian gaude, zoratu gabe, topikoak, horrela badira behintzat, alde batera utziz eta norberaren izaera indartuz. Azken finean, garenarekin, egiten dugunarekin eta daukagunarekin zoriontsu izaten saiatuz.

Nora Makatzaga

telefonoak ~ ordutegiak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Zaintzako botikak:

*Lasuen-Elezgarai (Mutriku)	943 19 50 26 / 626 611 392
Apraiz (Mutriku)	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Zalduegi (Deba)	669 26 22 01
Burgoa (Deba)	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77

*Otxagabia botika hemendik aurrera Lasuen-Elezgarai da

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Bake Epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz Frontoia	943 60 41 91
Ur partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Anai Arte	943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika eskola	943 60 37 80
Haur eskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia	638 672 383
Anton Taxia	666 221 999
Xabi Taxia	656 289 026
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa autobusak	902 10 12 10
Bizkaibus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Sta Katalina eliza	943 60 34 42
Kofradia	943 60 32 00
Posta zerbitzua	943 60 30 44

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak
6:50 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak eta Jai egunak
09:30 / 12:30 /16:30 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak
8:00 / 11:30 / 14:30 / 14:40 (Antiguotik) / 20:30
Zapatuak eta Jai egunak
10:30 / 14:30 / 17:30 / 20:30

Ordutegiak Bizkaibusen zerbitzuekin koordinatu dira Eibarren, eta Euskotren zerbitzuekin Deban.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunak
6:55etik 21:55era, orduro eta azkena 22:30etan
Ostiraletan bakarrik 23:05 / 00:55
Zapatuak
07:55tatik 22:55ra orduro.
Gauekoa 01:05 / 03:05 / 05:05 / 06:35
Jai egunak
8:55etik 20:55era orduro.

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIARA

Astegunak
7:15etik 20:15era orduro / 21:25 / 22:15*
Ostiraletan bakarrik 22:45* / 23:20* / 01:10*
*ez dira pasatzen Mendaroko ospitaletik eta Deban tunelean geratzen dira.
Zapatuak
07:15etatik 22:15etara orduro.
Gauekoa 23:55 / 01:55 / 03:55 / 05:55
Jai egunak
8:15etik 20:15era orduro. Azkena 21:25etan.

BILBOtik - ERMUA - ONDARROAra (autopistatik)

Astegun eta zapatutan
orduro 07:10etan hasita - 22:10etan azkena
MUTRIKURAINO 14:10 / 18:10 / 20:10
Jai egunak
orduro 08:10etan hasita - 22:10etan azkena

ONDARROAtik - ERMUA - BILBOra (autopistatik)

Astegun eta zapatutan
orduro 05:40etan hasita - 19:40etan azkena
MUTRIKUtik (goiko errotonda) 06:25 / 07:25 / 15:25
Jai egunak
orduro 06:40 hasita - 20:40etan azkena

LOKAL HUTSEN JABEEI DEIA

2014ean Mutrikuko Udalak ekintzaileei zuzendutako hainbat ekimen jarri zituen martxan. Hauen artean, Udal Garapen Departamendutik aholkularitza zerbitzua eskeintzeaz gain, "Mutrikuko merkatal eskeintzaren eta lokal hutsen analisia" aurrera eraman zuen Ikei enpresaren bitartez. Ikerketa honen helburua Mutrikuko merkataritza eskaintzaren analisia egitearekin batera, herriko merkatal guneetan dauden lokal hutsak identifikatu eta hauen jabeekin harremanetan ipintzea zen. Era honetara, Turismo Bulegora hurbiltzen diren ekintzaileen beharrak kontuan izanda Mutrikun dauden lokal hutsen artean egokienak identifikatu eta jabeekin harremanetan ipini ahal izatea bermatu nahi zen.

Lokal hutsen jabeekin kontaktatzeko izan ziren zailtasunak direla eta, lerro hauen bitartez Mutrikun zehar lokal hutsak dituzten herritarrei Turismo Bulegoarekin harremanetan jartzeko eskatu nahi diegu, pertsonalki ekimen honen berri eman ahal izateko. Hortarako 943 60 33 78 telefono zenbakira deitu edota ***turismo@mutriku.net*** helbide elektronikora mezu bat bidali beharko da.

Nerea Lazkano - *Mutrikuko Turismo Bulegoa*

GURE ESKU DAGOren BAZKIDE KANPAINA

Gure Esku Dago herri dinamikako kideok bazkide kanpaina abiatu dugu, ireki berri dugun erabakiaren aroa bururaino eramateko. Orain artean mila modutan dinamikan parte hartu duten herritar guztiei bazkidetzeko gonbidapena egiten diegu, orain artean bezala, elkarrekin osatzen dugulako Gure Esku Dago.

Gure Esku Dago dinamika sortu genuen unetik, herritarron protagonismoa eta partehartzeari esker eman ditugu emandako aurrera pausuak. Sortu izana bera, 150.000 pertsonak elkarri eskua emateari esker Durango eta Iruñea lotu izana, herriz herri eta auzoz auzo piztutako dinamikak… Gure Esku Dago sortu genuen erabakitzeko eskubidearen aldarritik gauzapenera igarotzeko. Erabakia argitu, eta erabakitzeko. Eta bide horretan, fase erabakiorrean sartu gara. Erabakiaren aroa abiatu dugu, erabakitzera goaz. Eta hortaz, beti bezala, baina inoiz baino gehiago, herritarrok behar dugu izan protagonista. Beraz, orain artean dinamikan modu batera edo bestera parte hartu duten herritar guztiei dei egiten diegu bazkidetzeko.

Gure Esku Dagoko herri/auzo batzordearekin harremanetan jarri eta bazkide-fitxa bete. Bazkideak eskubidea izango du dinamikaren ekimen guztietan parte hartzeko, erabakien eztabaidan parte hartzeko eta botoa emateko. Bazkideak dinamika ekonomikoki sostengatzeko konpromisoa hartuko du, betiere bere aukeren arabera hautatutako kuotari esker.

Gure Esku Dago

Kalaputxik irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira: Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku edo internet bidez bidaltzeko: kalaputxi2001@gmail.com edo kalaputxi@topagunea.com

BETAURREKO LILAK

Ez daudela bi hirugarrenik gabe, eta gai honekin azken aldiz, oraingoz, fokua ipiko degu genero indarkerixan, argixago esateko, indarkerixa matxistaren gainian.

Adierazpen eta salaketa jarreretik haruntzago mugitzen hasteko ordua dala eta, prebentzio lanetan hasi biharra dago. Bakoitza bere aldetik ibili ordez, herri osuari begirako jardueRak
egiteko modua ikusten egon ginan batzuk EMAgunian, abenduaren 17an egindako Batzar Orokorrian.

PREBENTZIO jardueretako bat Autodefentsa Tailerra da. Egin da bat iaz, parte hartzaileak gazteak izan ziran batez ere, eta aurten ere egingo da beste bat. Gero, buelta batzuk eman genien holako galderei: MUTRIKUN HEZKIDETZA BATZORDE BAT BAI? ZELA EGITEN DUTE BESTE HERRIXETAN?

Holakotan, galderak deskorapilatzen hasteko onena lanian hastia izaten dala eta (gauzak egin nahi diranian bidia ere aurkitu egiten da ez?) urtarrilaren 14an berriz egongo gera, pentsatzeko martxoaren 8ra begira ZER egin, gauzak ZELA azaldu herrixan, kalean... Azkenik, 25ean, otsaileko azken eguenian, arratsaldeko 5etan lokalian, koordinatzeko batuko gera eta batzar irikixa izango da nahi duenarentzat.

Irakurle, pasa mezua, danon konplizitatearekin elkarlanean jardutzeko aukeria daukagu: ZURE ZAIN!

emakumeakmutrikunabian@gmail.com

KLIMA ALDAKETA

giza-eraginaren ondorio

Egun, maila zabalean onartzen da lurrazaleko tenperatura igotzen ari dela eta ondorio arriskutsuak ekar ditzakeela gure bizitzarako. Gizakia, bere jokaerarekin, lurreko atmosferaren konposizioa ari da aldatzen, berotegi-efektua sortuz eta tenperatura igoaraziz. Arrisku egoera hori saihesteko asmotan, Nazio Batuen Erakundeak deituta, 195 estatu eta Europa bildu dira Parisen, COP21 bileran, Kyotoko Protokoloaren (1997) ordezko akordio bat sinatzeko.
Parte hartu duten estatu guztiek sinatu dutenez, lehen akordio unibertsaltzat agertu dute anitz hedabidek titularretan, eta mugarri bat dela diote eragile askok. Baina aurkako ahots ugari ere mintzo dira: "Antzerki bat izan da, eta ituna ez da aski izango 2,7 gradutik jaisteko."

Klima-aldaketa

Denboran zehar, denok dakigu tenperatura aldaketak izan direla. Gizakia lurrean izan denetik, ziklo ezberdinak ezagutu ditu, glaziazioak tarteko. Klima-aldakortasuna deitzen zaio, lurraren barruko zein kanpoko prozesuek eragiten duten aldaketari. Gizakiaren esku-hartzea tarteko denean, berotegi-efektua eraginez, orduan, klima-aldaketa deritzogu.

Berotegi-efektua

Atmosfera da Lurra inguratzen duen gas geruza. Osagai nagusiak hauexek ditu: nitrogenoa (%78), oxigenoa (%21,12), karbono dioxidoa (%0,04), ur lurruna (%2) eta gainerako beste gas batzuen aztarnak.

Atmosferak lurretik kanpoko erradiazioetatik babesten gaitu, izpi ultramoreak xurgatuz. Troposfera da atmosferaren geruza baxuena, bertan gertatzen dira fenomeno meteorologiko gehienak, 7 eta 14 km-ko lodiera du poloetatik ekuatorera, eta bertan kokatzen da ia lurrun guztia. Gorago dagoen geruza (50 km. arterainokoa) estratosfera da; bertan dago ozonogeruza, izpi-ultramore gehienak xurgatzen dituena.

Gaur egungo ikerketen arabera, berotegi-gasak dira arrazoirik nagusiena klima-aldaketan. Gas horiek eragindako beroketari deitzen diogu berotegi-efektua, eta eragina dauka Lurraren tenperatura erregulatzean. Eragin horretan garrantzi gehien dutenak, ur lurruna (eragin gehien duena), karbono dioxidoa (CO2), eta metanoa (CH4) dira.

Efektu hori nekazaritzan eta lorezaintzan erabiltzen diren berotegien analogiaz izendatu da. Espazio itxi batzuk dira, plastiko edo beira gardenez inguraturik, eguzkiaren beroa igarotzen uzten dute, eta, barnean gordez, landareek mikro-klima onuragarri batez goza dezakete. Jasotzen dituzten eguzki izpien bidez berotzen dira gauzak, baina, aire librean ez bezala, erradiazio infragorrien zati txiki batek soilik lortzen du beira zeharkatzea. Beste guztia barruan metatzen da.

Lurrean antzekoa gertatzen da. Eguzkitik etorritako izpiek lurra jotzen dute eta berotu, baina lurrak, hozteko, izpi horiek islatu egiten ditu berriz atmosferara itzuliz. Jasotako zein itzulitako izpi-kopuru horren orekak egiten du Lurraren eguratsa egokia izatea gizakiaren zein beste animalien bizitzarako.

Giza-eragina

Industrializazioarekin batera, gizakiak substantzia organikoak erabiltzeari ekin zion. Horiek erretzean, karbono dioxidoa sortzen da, eta hori atmosferan meta daiteke. Ondorioz, atmosferan aurkitzen diren zenbait gasek edo lurrun asko duen atmosferak izpi infragorriei eutsi egiten die, eta ez die uzten espaziora ihes egiten; horrek, jakina, energia balantzearen oreka apurtzea dakar bero pilaketa sortuz eta berotzea ekarriz.

Erregai fosilen erretzetik karbono dioxidoa sortzea izan arren bide garrantzizkoena, badago beste bide bat deforestazioa dena. Batetik, erretzeak dakarrena, eta, bestetik, landareen klorofila funtzioaren (karbono dioxidoa oxigeno bilakatzen duena) eragina txikiagotu egiten delako.

Animalia belarjaleen gorotzetatik, arroz-soroetatik eta zabortegietatik dator metanoa. Karbono dioxidoak baino hogeita hamar aldiz handiagoko ahalmena du beroa harrapatzeko. Frogatu dute, ipar poloan izotzak urtzerakoan, azpitik metanoa ateratzen dela, baita "fracking" bidez gasa ateratzerakoan ere.

Lurrazaleko ozonoa airea gutxi berritzen den leku kutsatuetan sortzen da. Estratosferan dagoen ozonoak

izpi ultramoreetatik babesten gaituen bitartean, kutsaduraren eraginez lurrazalean sortutako ozonoak, arnas arazoak eragin ez ezik, beroa harrapatzeko ahalmena duen lainoa sortu ere egiten du, eta karbono dioxidoarena baino bi mila aldiz handiagoa da.

Beste zenbait gasek ere badute eragina berotegi-efektuan, batik bat, nitrogeno oxidoak, karbono dioxidoak baino ehun eta berrogeita hamar aldiz handiagoa. Batez ere, gizakiak sortzen dute artifizialki basoak erretzean, ibilgailuen tutuetako gasek eta nekazariek erabilitako ongarriek.

Klima-aldaketaren aurkako borroka

Nazio Batuen Erakundeak giza ingurumenari buruzko nazioarteko lehen konferentzia 1972an egin zuen. Hamaseigarrena bete da Parisko COP21 bilerarekin. 1992an egindako bileran hitzarmen esparru bat erabaki zuten, klima aldaketaren eragileak gas isurketak murrizteko neurriak hartzera behartzeko.

1997an adostu zuten ezaguna egiten zaigun Kyotoko Protokoloa. Aipatu ditugun gasen eta beste hiru gas fluordunen emisioak gutxienez %5 gutxitzeko 2008 eta 2012 bitartean (1990ko emisioekin konparatuz). 84 estatuk sinatu zuten eta 184 iritsi ziren konpromisoren bat hartzera hurrengo urteetan, baina estatu garrantzizkoenak, AEB tartean, ez ziren benetako konpromiso batean sartu.

Azkenez, 2014an Europar Batasunak berretsi egin zuen, 2030erako energia berriztagarriak garatzeko eta isurketak %40 murrizteko. Txinak eta AEBk azaroan adostu zuten klima aldaketaren kontra egitea.

Parisko COP21 bilera

Klima aldaketa "itzulezina izan daitekeen premiazko mehatxu" bat dela dio adostutako testuak, eta oreka bat bilatu behar dela berotegi efektuko gasen igorpenean; izan ere, gaurko joerari eutsiz gero, munduaren tenperatura lau gradu inguru berotuko litzateke mende amaierako, ahaztu gabe, aurtengoa urterik beroena izango dela.

Kyotoko Itunaren lekukoa hartuko duen akordioa, hala ere, 1997an sinatutakoa baino mamitsuagoa da. Konpromiso nagusia mende amaierarako bi graduko marra gorria ez gainditzea da. Aurreikusitakoa baino beranduago, bileraren hondarretan, ozta-ozta adostu dute testu "historikoa" (195 estatuk eta Europak). Akordioa, baina, hasiera batean pentsa zitekeena baino lausoagoa da, legez bete beharrezkoa bada ere.

Akordioa bi zatitan banatu dute: akordioa bera eta hogei orrialdeko eranskin bat. Txinaren, Amerikako Estatu Batuen eta Indiaren aurrean amore eman dute, formula bitxi horren bidez, berotegi efektuko gas gehien isurtzen duten herrialdeek; izan ere, ez zeuden prest alor horretan legez bete beharreko konpromisorik hartzeko.

Bukaera horrek ez ditu guztiak ase. Hona adibide bezala egunkarietan izandako titular batzuk: "Pauso garrantzitsua da, baina gehiago lor zitekeen", “Multinazionalen mesedetan eginiko akordioa da", "Analista askok uste genuena baino dezente gehiago lortu da", "Legez konprometitu arren, nahi dutenean uko egin diezaiokete"...

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña
EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Ttoak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

KULTUR-GALA

Arg.: A.Gorritiberea

Abenduaren 29an ospatu zen udaletxearen batzar aretoan lehen Kultur-gala. Alkatearen agurraren ondoren hiru atal izan zituen ekitaldiak: *"Donostia 2016"* kultur hiriburuaren azalpen laburra, *Ziriako Andonegi V. Ipuin Sariketa*ren emaitzak, eta kultur arloan sarituak izan diren herritarren aipamena, talde mailan zein pertsonalean.

Aitzol Astigarraga mutrikuarra, antolatzaile taldeko partaide, izan zen "Donostia 2016" buruz laburrean hitz egin zuena.

Ondoren, Iraitz Legarra Bazterretxea markinarrak jaso zuen Ipuin Sariketako irabazlearen saria, "Lehoiaren orroa" lanagatik. Mutrikuar onenaren saria Joseba Palenzuelak jaso zuen "Banator Hemin" lanagatik, eta 16-18 urte bitartekoen artean Ana Zubiaurre elgoibartarra izan zen saritua "Ez zaitut ahaztuko" lanagatik.

Kultur Taldeari sari ematea izan zen hurrengoa. Akordeoi Taldeak jaso zuen sari hori 25 urte betetzen dituen honetan. Julia Iriondo zuzendariak jaso zuen saria, ibilbide horren bideo proiekzio polita pantailan ikusi ondoren. Talde osoa aurreratu zen, tartean Juliak adina urte taldean daramatenak.

Azkenez, Jon Azpillaga izan zen saritua hainbeste urtetako bertsolari ibilbideagatik. Ekitaldi hunkigarria gertatu zen, bertan izan baitziren Jon Lopategi eta Gregorio Larrañaga "Mañukorta" bertso-lagunak euren bertsoak eskainiz. Proiektatu zuten bideoan zenbait argazki maitagarri azaldu ziren, eta tartean Andoni Egaña eta Amets Arzallusek eskainitako bertsoak. Ez ziren falta izan herriko Bertso Eskolako ordezkariak, zuzenean zein bideo bidez euren maisuari bertsoak eskainiz.

OKELARTARREI OMENALDIA

Urtarrilaren 16an Okelar anaiei omenaldia eskaini zien Mutrikuko Bertso Eskolak. Bertaratutako bertsozale mutrikuarrek bertso ederrez gain, Okelar anaiei buruzko bideo-dokumentalaz ere gozatu ahal izan zuten. Atzera begirako ariketa polita Bertso Eskolak prestatua, aurrera begira jarraitzeko indarra eman ziena bertaratutako guztiei. Aurtengo bertso paper sariketako irabazleen sariak ere banatu ziren. Umeen mailan, lehen saria Aner Peritz-ek jaso zuen, bigarren saria Izaro Agirrebengoak eta Mutrikuarraren saria Mikel Galarragak. Helduen mailan txapelduna Xabi Astigarraga *Okelarko iturria* bertso-sortagatik; bigarren saria Iñigo Legorburu-k jaso zuen *Okelartarren iturritik* bertso-sortagatik; Mutrikuarraren saria Juan Mari Agirrezabalak jaso zuen *Modesto eta Roman Okelar* bertso-sortagatik. Parte hartzaile, irabazle, bertsozale, antolatzaile,... guztioi zorionak!

FONDABERRI APARKALEKUA

Azkeneko pare bat hilabeteetan aparkalekua irekita dago kutxazaina hondatuta dagoelako. Behin eta berriz saiatu da Udala kutxazaina konpontzen baina ezinezkoa izan da fundamentuz martxan jartzea. Horregatik, udalak kutxazain berria erostea erabaki du eta otsailean zehar jartzea espero da. Bitartean parkina zabalik egongo da baina, makina berria jarri ondoren, betiko funtzionamendura itzuliko gara.

2016an ERE KIROLDEGIA MARTXAN

Aurtengo bazkidetza kuotak eta zerbitzu eskaintzak zeintzuk diren jakin nahi izanez gero, bertara hurbildu zaitezkete zuzenean, bestela, 943603175 telefono zenbakira deitu edota *mutrikukiroldegia@gmail.com* helbide elektronikoan ere jaso ditzazkezue argibideak. Urte berri osasuntsua!

URTATS ARNON

Ohiturari jarraituz, mendizale askok Arnorako bidea egin zuten, urte hasierako lehen astinaldia emanez gorputzari. Aterpera iristean, hantxe zeuden Burumendi MTko lagunak salda beroa eta ogitartekoa txorizoarekin eskainiz, arnasa bueltatu ondoren gozatzeko. 350 txorizo eta 40 litro salda banatu zituzten Burumendikoek. Aipagarria, bestalde, institutuan hasi diren 11 gazte izan zituztela laguntzaile behar ziren gauzak igotzen. Oso pozik zeuden Burumendiko lagunak gazteen iniziatibarekin. Inoizko goizen hasi zela jendea igotzen zioten, eta batez bestekoen adina behera doala urtez urte. Gero eta gazte jende gehiagok hasten du urtea Arnon. Salda eta txorizoak ez ezik, Morkaiko MTko lagun elgoibartarrek Arnoko txabola inauguratu zuteneko argazki zaharrak ere bazeuden, 1943koak. Baita berandugo inguruan bertan zenbait lagun mutrikuarri ateratakoak ere. Argazki horiek Josetxo *Kaskas*en esku zeuden, eta honek oparitu zizkien Burumendikoei. Itsulapiko bat ere jarri zuten aterpetxean egin beharreko obrak ordaintzen laguntzeko (lurrak behera egin eta habe berriak jarri behar izan zituzten). Aurreko astean aritu zen lagun talde bat horretan: habeak sorbalda gainean jaso zituzten.

EIBARKO TXAKURTEGIA

GEPE herritarren elkarteak txakurtegiaren funtzionamenduari akatsak ikusten zizkion eta manifestua egin zuen hainbat neurri zuzentzaile eskatzeko eta txakurtegitik pasatzen ziren animaliekiko tratua egokiagoa eta hobea izan zedin. Besteak beste, txakurtegitik pasatzen ziren txakurrik ez hiltzeko eskatzen zen. Azken hileotan herriz herri egindako kanpainetan hainbat eta hainbat herritarrek bere atxekimendua eman ondoren, oraingoan Eibarko Udalak eman dio babesa manifestuari eta horren ondorioz, honakoa eskatuko zaio txakurtegiaren titularra den Mankomunitateari: sei hilabeteko epean txakurtegia “zero hilketa duen abegilekua” izan dadin egokitzapenak egiteko. Sei hilabete barru, hortaz, eskualdeko txakurtegira ailegatzen diren txakurrekin eta katuekin ze jokabide hartuko den jakingo dugu. Bitartean, norbaitek txakur nahiz katu bat adoptatzeko gogoa edota interesa badu, *http://debabarrena.eus/eu/zerbitzuak/animalien-bilketa* helbidean izango du aukera, baita 943 700 799 telefonoan ere.

KANPOSANTUA IREKITZEKO ORDUTEGIA

Aspaldidanik dago onartua udal-hilerria irekitzeko ordutegia, baina betidanik jokatu izan da malgutasunez, izan ere, asko baitira irekiera ofizialetik kanpo beren aurrekoei bisita egitera doazenak. Hori dela eta, goizeko 9etan zabalik egon izan da kanposantua eta zazpiak eta beranduagora arte ere zabalik egon izan da.

Joan den aspaldian, ostera, kanposantuaren barruan gaiztakeriazko jokabideak gertatu izan dira, hilobietan lapurretak eta hausturak eraginez. Horri erantzun nahian, Udalak hilerria irekitzeko ordutegia zorrotz betetzea erabaki du, kalteak ekidin edo ebitatu nahian.

Hortaz, aurrerantzean, hilerria goizeko 11etan ireki eta arratsaldeko 6etan itxiko da. Udan, berriz, ordubete beranduago itxiko da, 7etan.

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

NIRE "TXOKORA" BUELTATU NAIZ BETIKO

Herrian ikusi dugu Mikel Arrasate Olazabal (67 urte), eta berarengana jo dugu "Mutrikuarrak erbestean" atala betetzeko asmotan. Asko poztu gara Mutrikun gelditzeko asmoa duela adierazi digunean, bai behintzat urtearen zatirik handienean. Mexikon dituen inbertsioei gainbegira bat ere egin beharko baitie noizean behin.

Zerk bultzatuta hartu zenuen Mexikorako bidea?

Anaia nuen Mexikon eta baita arrantxo batzuen jabe eta familiakoa den Fermin Arrasate ere. Lanen bat aurkitzeko posibilitateak ikusi nahirik, anaiari bisita egitea erabaki nuen. Horrela, anaiaren burdindegi edo ferreterian nengoela, aita gasteiztarra eta anaiaren laguna zen Pablo Mendizabal, errota handi baten zuzendaria, agertu zen. Ea zertara joan nintzen galdetu zidan, eta, anaia bisitatuz batera, ea lanen bat aurkitzen nuen, erantzun nion. Bada, etor zaitez lanera nirekin errotara! Eta halaxe, laster batean hasi nintzen lanean.

Nolako bizimodua zen zurea?

1984an joan nintzen. Errota Tlaxcoapan herrian dago kokatua, Hidalgo probintzian, Mexiko DFtik 80 km ipar aldera. Etengabe egiten zuen lan errotak aste guztian, igandeko seietatik asteleheneko seiak arte izan ezik. Bizi nintzen etxea enpresarena zen eta inguruan kokatua zegoen, eta nire ardura gaueko produkzioarena zen. Garia ehotzen genuen, eta makineriaren mantenuak berebiziko garrantzia zuen, geldiera batek eragin handia zuelako produkzioan, berriro hasteak kostu handia baitzeukan.

Beraz, ia aste guztia lanari lotua. Igandea aprobetxatzen nuen Ecatepec herrian, Mexikoko estatuan bizi zen anaiari bisita egiteko, eta elkarrekin murgiltzen ginen euskal giroan. Kale-giroa ez baita erakargarria, tentuz eta leku ezagunetan ibili behar da ziurtasun eza dela-eta.

Orain arte jardun duzu lan horretan?

Ez. 24 urte egin nituen Pablo Mendizabalekin. Azken urteak Coacalco Mexikoko estatuan pasatu nituen, han neukan lagun batek eskatu baitzidan bere hamaika okindegiren kontrola eramateko –lapurreta ugari egiten baitzioten–. Bertan jardun dut erretiroa hartu arte. Hantxe dut oraindik etxea, eta urtean pare bat aldiz joaten naiz bertara hilabetetxo inguru pasatzera, han ditudan inbertsiotxo batzuk gainbegiratzera.

Gomendatuko zenieke mutrikuar gazteei Mexikora joatea? Ba al dago lanik?

Kontuan izan beharko dute han ez dagoela hemengo bizitzarik. Dirua aurreratzea helburu jarrita, tira! Leku guztietan bezala lan asko egin behar da eta gutxi gastatu. Lana badago, baina ukondoa behar da lortzeko: "Euskal Etxea" da horretarako leku aproposa, euskaldunak hantxe biltzen baitira. Bestalde, bertako paperak ateratzeko gutxieneko bost urte eskatzen dizute lanean egotea, eta ondoren ematen dizute inmigrado izaera. Gainera, bertako administrazioan mafia asko dago, eta nahiz eta abokatu on bat hartu gestioak egiteko, kosta egiten da. Hamar urte kostatu zitzaidan niri, eta berdin nire anaiari, eskaera desegokitzat hartu eta berriro zerotik hasi behar izan genuelako. Nazionalitate bikoitza lortu nuen arte arazoak izaten nituen zenbait gestio egiteko, banketxeetan gehienbat. Enpresa batek kontratatuta joaten bazara, enpresak berak eramaten du agiri kontua.

Ohitu al zara herriko bizitzara?

Oso gutxi ateratzen naiz kalera. Batetik, hango bizitza ohiturei jarraitzen diedalako eta, bestetik, amarekin bizi naizenez, nire laguntza behar duelako.

Bikotea eraldatuz



"poligamia vs. polimaitasuna"

Kaixo! Gabon hauetan, beti bezala, aitaren herrira joan gara Gabon Zahar pasatzera eta, beti bezala, bertako lagunekin ibili naiz. Gainera, aurten, txikitatik ikusi gabe geneukan lagun bat zetorren, beraz, desiatzen guztiok!... eta a ze desirak! Nire burua geldiarazi izan behar nuen hainbatetan eta nahiko argi daukagu elkarrenganakoa dela hau… baina bikotea daukat… bikotea irekitzea pentsatu dut, zer diozue?

Telebistako publizitateak dioen bezala… "ERROOOOOOOOOOOR!!!". Gelditu momentu batez eta galde iezaiozu zure buruari: "ba ote dakit zer suposatzen duen bikote ireki batek?".

Tira ba, hasteko, esaera aldatuko dugu eta bikote irekiaz baino, aktibismoaren mundutik ezarri zaion izena erabiliko dugu: "polimaitasuna". "Polimaitasuna"-k pauso bat gehiago ematen du eta harreman mota desberdinen bizikidetza planteatzen du eta askoz ere baliogarria zaigu, izan ere, minimoetan gelditzen bagara, guztiak dirudi erraza.

Maitasun edo, desberdintzeko, desira harreman desberdinak batera existitzeak maitasun harreman bakar baten agertzen diren arazoen hazkunde esponentziala dakar. Izan ezazu argi. Monogamiaren logika, jeloskortasuna eta bikoteari eman "beharreko" denbora zainetan daramatzagu nahiz eta ikasgai sozialak izan. Eta hauek desmuntatzea oso zaila da.

Gainera, egin beharreko (bai hasiera eta denbora osoko) lanaz gain (jelosia kontrolatu, harremanak zaindu, norbere sentimenduekin irekia izan,…); badago elkarrekin egin beharreko beste lan bat: harreman berri hau diseinatzea.

Irekiera honek ba al du mugarik? Zeintzuk dira mugak?… eta bereziki garrantzitsua: seguru ote muga horiek ez direla paradoxa hutsak? Alegia, errespetaezinak?

Sarritan jendeak polimaitasun eredu desberdinetan pentsatzen du norbere "beroaldi esporadikoei" bide emateko. Baina ez du inoiz bere ondorio eta efektu posibleetan pentsatzen. Desiren jokoa mekanika hutsera murriztu eta bere baitan dakarren konplexutasuna ahazten dute.

Honetaz gain, azken gauza bat badago ere, kudeaketa. Elkarri gertatzen dena kontatzen diogu? Guztia? Soilik beste pertsona guretzat esanguratsua denean?...

Badakigu oso negatiboak dirudigula, baina polimaitasunaren konplexutasunak dakartzan zailtasunak argi utzi nahi ditugu azken galdera bat zure buruari planteatzeko: seguru prest zaudela?

Emaiozu pare bat buelta… bisita itzazu polimaitasunari buruzko webguneak… eta behin ondo pentsatuta, har ezazu erabaki bat. Baina ez pentsa hau larrosa bide bat edo panazea denik. Gutxiengo batek daraman bizimodu konplexu eta nahasgarria da hau eta ez da inondik inora arintasunez hartu beharrekoa.

…Gehiago jakin nahi?

hona hemen bi baliabide interesgarri, tamalez, biak gazteleraz:

"Golfxs con Principios" taldearen bloga: www.golfxsconprincipios.com

"Ética Promiscua" Dossie Easton eta Janet W. Hardyren liburua.

Galderak edo zalantzak argitzeko:
nageura@gmail.com



SAIOA R. ELEZGARAI

“Ikertzea pasio dudalako nago honetan”

Gabonetako egunak tarteko, Milandik iritsi bezain laster berarekin egoteko unea hartu dugu. Gustura etorri da etxera baina ez du alfergurarik erakutsi egun batzuk barru Italia aldera itzuli behar delako.

Saioa R. Elezgarai (Mutriku 1986). Biologia molekularrean eta Biomedikuntzan doktorea. Doktoretza egin ondoren burututako tesia: “Prioi errekonbinanteak: entzefalopatia espongiformeak aztertzeko estrategia berritzailea”.

Esaldi potoloa aurrekoa, hasiko gara argitzen prioia zer den?

Prioia gaixotasuna sortzen duen proteina eraldatu bat da. Proteina horrek sortzen duen gaixotasunik ezagunena behi eroen gaitza da. Hala ere, proteina eraldatu hori gizakietan ere sor daiteke, haragi kutsatua kontsumituz, baita modu espontaneoan ere. Buruko gaixotasun batez ari gara, burmuina kaltetzen duen gaixotasun batez. Alzheimerra edo parkinsonaren antzeko gaixotasun bat izango litzateke, nahiz eta horien kasuan beste proteina bat egon tartean.

Honek esan nahi du buruko gaixotasunak aztertzen dituzula…

Bai, buruko endekapenezko gaixotasunak. Burmuina kaltetzen dutenak: alzheimerra, parkinsona, esklerosi amiotrofikoa… gaixotasun guzti horietan burmuina kaltetzen da.

Horien ikerkuntza nola dago momentuan?

Parkison eta alzheimer gaixotasunen kasuan, biztanleen artean zabalduago daudenez, gehiago ikertzen diren gaixotasunak dira. Prioiek eragindakoak, berriz, gaixotasun arraro bezala kontsidera daitezke, kasu gutxi daudelako, eta ondorioz gutxiago ikertzen da; proportzionala da. Prioien munduan ere ez daude laborategi gehiegi lanean. EHan bakarra dago, nik doktoretza egin nuen laborategia, eta ospitale batzuetan ere aritzen dira, baina, gehien bat, kasuak diagnostikatzeko. Espainia mailan hamar bat talde-edo ariko dira, eta laborategi horiek zentro pribatu zein unibertsitate publiko batekoak izan daitezke, adibidez, Santiago de Compostela edo Zaragozako unibertsitateetakoak.

Biología ikasketak egin zenituen?

Nik Farmazia ikasi nuen. Nire asmoa hasiera batean botikan lan egitea zen, baina karrera bukatzen nengoela beste zerbait egin nahi nuela ohartu nintzen. Karrerako azken ikasturtean Jaurlaritzako kolaborazio beka bat lortu nuen unibertsitateko laborategian proiektu bat egiteko, eta hantxe hasi nintzen ikerkuntza munduan lanean. Une hartan argi geratu zitzaidan doktoretza egin nahi nuela. Gauzak honela, masterra egin nuen, derrigorrezkoa delako doktoretza egiteko, eta, ondoren, CIC bioGUNE-ko Joaquin Castillaren laborategian egin nuen lau urtetan zehar doktoretza-tesia, Bizkaiko Parke Teknologikoan.

Zergatik joan zara Milanera?

Doktoretza bukatu nuenean, hementxe gelditzeko asmoa nuen, baina kanpora joateak asko laguntzen du aurrera begira. Eusko Jaurlaritzan beka bat

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZBUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

eskatu nuen eta ez zidaten eman; izan ere, jende asko gara eta diru gutxi dago. Egoera haren aurrean, Milango laborategi bateko ikerlari batekin hitz egin nuen. Une hartan dirulaguntza bat jaso zuen bertako laborategiak eta bi urterako kontratua eskaini zidaten, eta nik gustura onartu. Orain, Milaneko Mario Negri Istitutuan ari naiz lanean.

Saioa R. Elezgarai (ezkerretik hirugarrena), laborategiko lan-taldearekin

Zein egoeratan dago Euskal Herria ikerkuntza mailan?

Egoera ez da ona momentuan. Adibide bezala, 2010ean doktoretza egiten hasi nintzen laborategian 9-10 lagun geunden lanean, eta egun laborategi horretan bost lagun gelditzen dira, ez baitago jendea kontratatzeko dirulaguntzarik. Lan eskaintza falta dela eta, ikerlari askok kanpora alde egiteko erabakia hartzen du. Ni neu, saiatu nintzen hemen bilatzen, baina alferrik izan zen. Garbi nuen ikertzen eta ikasten jarraitu nahi nuela, trebatzen, eta ez taberna edo lantegian lanean. Ikerkuntzan dirua behar da, egun batetik bestera ez dira gauzak lortzen, urte asko pasatu behar dira emaitzak ikusteko. Izan ere, Ikerkuntza epe luzerako inbertsio bat da, etekinak ez dira hurrengo urtean ikusten, eta gaurko gizarteak egun batetik besterako emaitzak eskatzen ditu.

Gogorra da hemendik alde egitea?

Gogorra da kanpora joateko erabakia hartzea. Behin Milanen, lehenengo egunak izan ziren gogorrak, zeuk atera behar duzulako aurrera inoren laguntzarik gabe. Bertako jendez inguratuta nago laborategian, eta etxean bezala hartu naute. Italieraz egiten dut lana eta hasieran tutik ez banekien ere, eguneroko bizimodua egiteko moldatzen naiz.

Emakumearen presentzia nolakoa da?

Laborategietako ikertzaile nagusiak, gehienak, gizonezkoak dira, baina zientziaren alorrean ikasle asko eta asko emakumezkoak dira. Goi karguetan daudenak gehiago dira gizonezkoak, baina denborarekin emakumeok ere iritsiko gara ardura karguetara, ni baietzean nago. Ikerlari gazteen artean emakumeak gara gehienok.

Nola antolatzen duzu eguna?

Ia egun osoa ematen dut laborategian. Ahal dudan denbora gehienari probetxu atera nahi diot. Eguna ikertzen eta ikasten joaten zait. Ez da sakrifizioa niretzat. Bestalde, daukadan lan taldearekin aritzea ere abantaila da niretzat. Badakit esperientzia honek ateak irekiko dizkidala, eta horrek lanerako gogoak handitzen dizkit. Aukera honek neure burua janzteko eta osatzeko balio dit, eta horrek erabat asetzen nau.

Herrimina ere izango da noiz edo noiz…

Saiatzen naiz hiru hilabetetik behin edo etortzen, eta ezin kexatu. Euskararen falta da niretzat gogorrena. Gaurko aurrerapenekin errazago da komunikatzea; baina, hala ere, lagunak, bikotea, gurasoak, herria bera izaten dut oso gogoan. Milan hiri handia da, eta bizitza anonimoa egiten dugu denok. Dena den, oso azkar pasa da orain arteko denbora eta konturatu orduko hementxe izango naiz berriro. Udaberri alderako nahiko nuke doktoretzarako egindako ikerketa argitaratu, eta horrek ere denbora eskatzen dit.

Argi ikusten dut hemen, Euskal Herrian, ikerkuntzan inbertitu behar dela, bestela denek kanpora joko dute. Han ere, ikerlariek ez dute gehiegi irabazten, ordu mordoa sartu arren, soldatak ez dira horren araberakoak. Ikerketak pazientzia eta dedikazio handia eskatzen du eta horietakorik ez baduzu, hobe beste lanbide batera bideratzea.

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

XISTERA KLUBA

ZESTARENTZAKO ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Hamaika zestalari mutrikuarrek egin zuten bidea frontoian XX. mendean zehar. Horietako askok itzal handia utzi zuten, gainera, pilotaren historian. Ameriketako Estatu Batuak, Mexiko, Kuba, Filipinak, Italia... hamaika herritara ailegatu ziren mutrikuarrak pilotaren atzetik. XXI. mendearen hasieran, ordea, gauzak bestela dira, eta oraindik ere mutrikurrak joan badoaz ere, hor Erik Mendizbal eta, azkena, Jon Goenaga, zestak gainbeherako bidea hartua du. Horren aurrean, Euskal Herriko Zesta Elkarteak batu eta Xistera, Euskal Herriko Xistera Kluben Kirol Kluba sortzea erabaki zuten. Klub berri horretaz gehiago jakitearren, Danok Bat elkarteko kirol arduradun Jon Mendizabal Goxarrirengana eta Xistera Klubaren presidente den Ibon Urreisti Olabarrorengana jo dugu.

Azken hamarkadan Mutrikuko frontoiko eskolan hiru umerekin jardutetik berrogeita hamairurekin jardutera pasatu da Jon Goxarri, hainbat eta hainbat lagunen lanari esker. Herrian zesta-pilota galtzear egotetik orainaldi ederra eta etorkizun itxaropentsua izatera pasatu da. Baina gauzak bide zuzen eta egokitik joan daitezen, lanean jarraitu behar da. *“Beste herrietan ere lanean dihardute, baina guztiok ari gara nor bere martxan, nor bere errealitateari begira”* dio Jonek. Xistera klubaren sorreraren bitartez *“zesta-klub guztiak elkartu eta guztiontzako bide bateratuak eta adostuak jorratu nahi ditugu, norabide berean jarri eta gaur egungo zesta-eskoletako neska-mutil gazteentzat etorkizun oparo batentzako bideak eraiki”* adierazi du Ibonek.

Adierazi dutenez, lau helburu nagusi izango ditu Xistera Klubaren proiektuak, guztiak zesta galbidetik atera eta pilotari gazteei aukera berriak emateaarren:

1. Zesta Eskola kirolaren barruan sartzea, neska-mutil gazteak frontoietara erakartzeko, zesta praktikatzera.
2. Zesta-eskolak bultzatu eta berriak sortzea, eta bakoitzaren beharrei erantzutea.
3. Afizionatu mailako zirkuitua martxan jartzea, gazteei aurrera jarraitzeko ilusio berri bat emateko eta zestak bere lekua topatzeko.
4. Denborarekin, etxeko lanak ondo egin ahala, zesta munduan zehar zabaldu.

Helburu horiek lortzeko, elkarte bakoitza bere aldetik ibili gabe, Euskal Herriko 22 elkarte batu dira Xistera Klubean, eta guztiak izan ziren Markinan egindako aurkezpenean: Bizkaiko 7, Gipuzkoako 6, Iparraldeko 5, Nafarroako 3, eta Arabako 1. *“Klub guztiak batera indartsu agertuko gara erakundeen aurrean eta gizartearen aurrean. Inoiz ez bezalako dinamika batean hasiko gara, eta aukera berri asko irekiko zaizkigu elkarteoi, guztia zestari behar eta merezi duen tokia emateko”* dio Ibonek.

Elkartearen jendaurreko aurkezpen ofiziala urtarrilaren 9an izan bazen ere, elkarteko ordezkariek, Ibon buruan, hilabeteak daramatzate bilerak hanhemenka egiten. *“Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin, hiru Aldundiekin eta Udalekin egin ditugun kontaktuak oso baikorrak izan dira eta guztiek ikusi dute begi onez proiektuan guztiok batera joatea”.* Erakundeekin ez ezik, EITBrekin ere bilerak egin dituzte zesta-partidak gizarteratzeko moduak aztergai hartuta. *“Gauzak ondo badoaz, aurten bertan izango dugu aukera zesta afizionatuari tarte bat egiteko telebistan, eta uste dugu horrek funtzio garrantsitsua beteko duela”,* Jonek.

Eta administrazioekin egin beharreko lan isilaz gain, frontoietan ere jardun du lanean Xistera klub berriak. Lan horren ondorio, Bizkaiko Ereño herrian 11 neska-mutilekin sortu den zesta-eskola berria, edota Lekietioko klubean, eskuzko atalaren parean zestazko atala sortzea. Zesta-eskolen sarea

zabaltzen ari dela ikusteko bi adibide baino ez dira hauek. Eskola berri horietan pilotari berriak hasiko dira, eta horrek lagundu egingo du txapelketa berriak, festibal berriak eta formula berrietako lehiaketa berriak sortzen eta, nola ez, zestaren familia zabaltzen.

Azken urteetan hainbat herritan ikusi den moduan neska-mutil gazteek lehiatzeko aukerarik ez dutelako 16-17 urterekin zesta utzi gabe, frontoian jarraitzeko aukera berriak sortu nahi dituzte Xistera klubak zabalduko dituen bideen bitartez; *"frontoian hasten diren umeek ikus dezatela, horretan jarraituz gero, luzaroan jarraitu ahal izango dutela beren gogoko kirolean. Lehen, hamasei-hamazazpi urterekin herritik irten eta zesta-munduan jarraitzeko aukera zegoen, eta modu natural batean jarraitzen genuen 30 urte buelta arte jokoan. Gaur egun, gero eta zailagoa da dinamika hori, eta adin horretan frontoia utzi eta beste kirol batzuetara aldatzen dira gazteak, edo kirola utzi. Horri buelta eman nahi diogu, eta afizionatuentzako zirkuitua zabaldu nahi dugu"* esan digu Jonek atzekoa gogoratuz eta etorkizunari begira.

Xistera Klubaren sorrerak aurrekoaren eta ondokoaren arteko mugarri bat ezarri nahi du. Diotenez, ondo dago aurretik izan diren gorabeherak ezagutzea eta horietatik ikasgaiak ateratzea, baina etorkizuneko otarra egiteko zume berriak behar dira. Eta inoiz egitea lortu ez den moduko ekimen honek indarrak batzeko balioko du, kimu berria ekartzeko. *"Hogeita bi elkarte asmo baterako elkartuta: Zesta-punta salbatzea"* adieraztean bat egin dute Jonek eta Ibonek.

Eta gaur artean Xistera kluba posible izateko lanean jardun duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete Jonek eta Ibonek, horien guztien lan isil hori gabe alferrik izango zirelako asmo on guztiak. Eta bereziki Euskal Herriko Pilota Federazioko presidente Patxi Jauregi aipatu nahi izan dute, honek zesta zulotik atera eta aurrera begira jartzeko eta sustatzeko egin duen lan apartarengatik.

Etorkizuna oparo dator zesta zaleentzat!

San Anton, bixigua monton

Aurreko baten esan genduan bezela, orain urte gitxira arte, ezin zeiken falta bixigu-erria Gabon-egunian eta Gabozaharrian. Ezta pentsau ere. Orduan, oraingo aldian, askoz merkiagua zan-eta! Begiratu al diozue aurten bixiguaren preziuari? Bildurtzeko modukua! "Bisigua" esaten zako batuaz arrain gozo honi, eta Mutrikun, *bixigua, bixiua* edo *bixua*. Gaztetxuenok bixigukumak (*pantxuak*) bai, baiña bixigurik ez degu ezagutu Mutrikuko moillan.

Lehengo arrantzalientzat, bixigua zan neguko diruitxurrixa. Horixe azaltzen deu Gorosabel historialarixak (1862): *"la pesca ordinaria consiste en besugo en tiempo de invierno, atún en la temporada de verano..."*. "Afiladores" izeneko kantak neguko ohiko jakitzat jotzen deu bixigua: *"Vamos a hacer merienda, gure kuadrillakin, cuando no hay besugo kalatxorixakin..."*.

1773ko ilbeltzaren 22xan itsasuak Mutrikuko moilla zati bat apurtu eta txalopak bixigutara ezin ertenda gelditzu ziran. Antonio Miguel de Acillona alkatiak, traba egitxen zeuen harririk haundixenak kentzeko eskaeria egin zoan, udaletxeko batzarrian, *"para no interrumpir la pesca del besugo que tanto importa para la su(b)sistencia de esta villa y sus havitantes"*.

Bixigua harrapatzeko sasoiari *bixigutia* esaten zakon. Abenduan hasi eta ixa martxora arte luzatzen zan. Bi esaera honek entzun ditxugu arrantzalien ahotik: *"Santa Katalina noiz da? Bixigutako goiz da"*, *"San Anton, bixigua monton"*. Zemendixaren 25a da Santa Katalina-eguna, itxura danez, goiz samar bixigutarako; eta oraintsu pasautako San Anton-egunaren bueltan –ilbeltzaren 17xan– harrapatzen zan bixigurik gehixen.

Calera (GipuzkoaKultura.net)

Bixiguak ez ziran edonun harrapatzen. Hortarako plaia edo kaletara juan biharra zauan: *Kostarrenkala, Plaiasun, Exkote, Garro, Arritxu...* Kala horrek hurrehurre ez zozenez, txalopa egokixak bihar ziran. Mutrikuko Arrantzalien Kofraixaren 1598ko ordenantzetan irakurri leike, bixigutarako eta atunetarako, derrigor, txalopa koskorrak egin bihar zirala: *"e para con más seguridad pueda navegar, especialmente en la pesquería de besugos en el invierno y de atunes en verano, que las dichas pinazas que se hicieren de aquí adelante sean y tengan cada una quince codos de largo de branque a branque"*. 15 besoko neurri hori, 8 metro pasatxoren parekua zan (8,62 metro).

1862. urtian, neguko arrantzara hortarako 17 txalopa zozen Mutrikun; udan berriz, 32. 1893an 56 txalopa haundi ibiltzen ziran bixigutan; erderaz, *"lanchas caleras"* esaten zixuen. Urte horretako dokumentu batek hala ematen deu txalopa klase horren berri: *"las lanchas grandes llamadas caleras que se dedican principalmente en invierno a la pesca del besugo en lejanas calas, en verano a la del atún en las costas de estas provincias y en las vecinas de Santander y aún Asturias, pescándose también con dichas lanchas la merluza y otras especies"*. Txalopa horren adibide bat: 1891n Mutrikun egin zan *"Flor de Mayo"* (luzeria, 13,25 m., zabaleria: 2,85 m., altueria: 1,20 m., pixua: 7,00 Tn.).

Bixiguak harrapatzeko tretzak erabiltzen ziran: amuak, txanpelak eta supillak. Supil batetik bestera, kordelak. Ur-azalian buixak, eta tretzak ondora juateko harrixak. Gerra ostian, barku bakoitzak 50 tretza inguru ibiltzen zitxuan.

Karnatia, gatz emandako antxobia izaten zan. Udazkenian, treiñarekin antxoba txikixa harrapatu eta lojetako harraskatan gordertzen zan, gatzetan. Tiña eta barrilletan ere gordetzen zan. Bixigutia aillatzen zanian, gabeko ordu txikixetan, tretzak karnatatziai ekitxen zixuen, andrazkuek eta gaztetxuek gehixenbat; *lojako aitxona* esaten zakon edadeko gizonezkua ere baziharduan lan hortan.

Karnatatutako tretzak treostaretan jarri, eta aparijo harek danak, bi gizonen artian, domiño-otarretan eruaten zitxuen txalopatara.

Baiña, urterik urte, urritzen juan zan bixigua, eta 1962. urterako ziharo galdu zan arrantza hori Mutrikun. Errazoi bat baiño gehixo egon leiken arren, gerra aurretik, arrantzaliek-eta arrastako barkuei botatzen zixuen errua. Itxuria, arrasteruek bixiguen bizitokixa desegitxen zeuen, algak eta koralak apurtu... Eta arrastako barkuak ugaritxu ahala hasi ziran izkutatzen kaletatik. Angel Osoro "Aberri" idazle mutrikuarrak hala eman zoan horren berri, geure herriko kronika baten (Argia, 1926-01-03): *"Oso gaizki dabiltz gure arrantzale gizajuak, bada juan dan aste guztian ezer ez dute ekarri... Arrastera madarikatu oiek emendik bear diran tokira bialtzeko gizonik ez ote da sortuko? Ala ainbeste sendi goseak iltzen uztea arrazoizkoa ote da? Emengo itsas ertzeko arrantzale guztiak batu ta onian nai ezpadute txarrian erakutsi. Zer arrayo! Agindua ez dute bada emendik urrun ibiltzeko? ".*

Mutrikuko dozenak, 15 bixigu!

XX. mendera arte, atuna neurtzeko *kintxala* (50 kilo inguru) erabiltzen zan bezela, bixigua neurtzeko *arrua* (edo arroba) erabilli izan da. *Arrua* batek, gitxi gora behera, 12,50 kilo zakazen. Kofradixaren 1798ko kontu-liburuan hala azaltzen da: *"por el derecho de las calderas de 4.101@ de besugo, que se le entregaron para freir a 3 maravedies por @".* Bai, ondo irakurri dezue, "@" zan arruaren ikurra. Bestetik, ez da gitxi 52 tonatik gora prikitzia eskabetxerako!

XVI. eta XVII. gizaldixetan behinik behin, bixiguak "*dozenatan*" neurtzen ziran. Zenbat bixigu sartzen ziran *dozena* baten? Hamabost!! 1620. urte hasieran, Mutrikuko Kofradixakuak alkartu eta Garizuma arte (hauts-eguna) harrapatutako bixigu guztiak Pedro de Amezquetari saltzia erabaki zeuen, *"es a saber, cada una dozena de besugos que fueren de la dicha cala ordinaria [...] en preçio de 6 reales cada una dozena, que se (h)aze con quinze piezas de besugos como es costumbre. Y lo que de la Bamporte se traxere, en preçio de 5 reales cada una dozena".* 1607ko dokumentuetan ere berdin, *"la dozena de besugo quinze besugos como siempre se (h)a acostumbrado".* Badakizue, Mutrikun, betidanik, dozena batek hamabost!!.

Josu Larrañaga Arrrieta

IRRI SORTA

Irri irri txantxangorri
Negu edo udaberri
Denok batera kantari
Pozez eta ameslari

Gabonak; hezkuntza ofizialaren opor sasoia; afariak egiteko instanteak; lagun arteko elkartzeak; familia batzarrak; herrian barrena, Bertanek jarririko argi eta xarma bereziaz hara eta hona aritzeko egun bereziak. Eskerrik asko Bertan, herria aspaldi ez bezala atontzeko hautua egiteagatik, bada, nork aldarrikatu du abendua tristea dela? Nork xuxurlatu du garai hau, ezer egitekorik gabeko egunez beterik dagoenik? Nork ez du ezagutzen Txantxangorri oraindik? Nor geratu da Gabonetako ekintzetan parte hartu gabe? Ez da ba egia izango!

Ba hara lagun, aurten, ohi ez bezala, bi ekintza egin genituen. Lehen egunean, astelehena hilak 28, estreinakoz, Miruaitz Frontoira puzgarriak ekarri genituen. Eta lehen aldia izateko, a zer nolako arrakasta! Haurren eta batik bat gurasoen erreakzioen beldur ginen egia esan. Sarrera hiru euro zela eta askok hori leporatuko zigutelakoan. Badakizue, krisi garaian gaude eta egunotan poltsikoa ondo zaindu beharra dugu. Baina kezkak, haizeak eraman zituen amen batean haurrek pozez zoratzen ikusi genituenean, eta guraso batzuk ere, zer esanik ez!, haien haur senari ateak zabaldu eta puzgarrietan aritzeko aukera ere izan zuten, eta horiek bai barre algarak! Hori bai gozamena! Konturatu orduko, jada bazkaltzeko ordua iritsi zitzaigun eta beste honenbeste ere arratsaldean. Mesede ederra egin ziguten Juanjo Urkiri eta Joxe Mª Mancisidorrek. Mila esker benebenetan.

Puzgarriak, “Atracciones Sanz” elkarteari eskatu genizkion. Aspaldidanik aritu izan dira herriz herri jai giroa aldarrikatzen, eta geurean ere, askotan izan ditugu. Tamalez, urtez urte gero eta harreman urriagoa dago. Guk pertsonalki, hainbat elkarteri eskatu genizkion aurrekontuak, baina Sanz-eko langileekin aurrez aurre egotean eta dituzten eskaintzak ikustean, ez genuen izan dudarik! Eskaintza bikainak, kalitate ezin hobea (herriko haurrek ez dute gutxiago merezi) eta harremana zer esanik ez! Mila esker Sanz, haurrei eskaini gura izan dugun hori ulertu eta aurrera eramateagatik. Ziur, gure arteko elkarlana ez dela egun soil batean geratuko.

Bestalde, asteartea hilak 29an, nola ez, sei urtetik hamabi urte bitartekoekin, Donostiako Izotz Pistara egun pasa egin genuen eta aldiz, txikienekin Donostiako GUPera. Ikaragarria da irteera hau egiteko haurrek izaten duten nahia, urtero egiten dugun arren, jakinaren gainean gaude, haurrak zain egoten direla. Oraingo honetan ere, egundoko ume pila etorri ziren. Txikienak gora eta behera, atzera eta aurrera ibili ziren Kursaaleko Haur Parkean zeuden koltxoneta, tren eta aurpegi margotzeko postuetan. Zaharrenak, bestalde, Txuri-urdineko izotz pista guztian zehar ibili ziren patin pare bat eta kaskoa jantzita, ez dugu esan beharrik sekulako ondo pasatu zutela, nahiz eta batzuk zenbait aldiz luze geratu izotzetan.

Gabonetako oporretako ekintza hauetan izan dute Txantxangorriko begirale berriek lehen hartu emana umeekin, hasieran lotsatuta egon arren, autobuseko berriketa eta Txuri-urdinen hartutako ipurdikoak lotsa dena kendu zien bat-batean. Orain, begirale berrien helburua herriko haur guztien izenak ikastea izango da.

Huraxe bai izan zela ekintzetan gustura irri egitea! Haur, nerabe eta gurasoen barreak eskuekin harrapatzeko beta izanez gero, ederra eraikiko genuen sorta! Ez nolanahikoa gainera. Irribarreak gazteagotzea dakarrela egia bada haurtzaindegira joateko prest gaude jadanik!

Ez ahaztu San Silvestreko argazkiak blogean dituzuela ikusgai!

Txantxangorri Aisialdi Taldea

2016 Aldaketa Urtea

BIHOTZEZ sentitzen degulako mundu hau eta bakarra zaindu egin behar degula
BURUAZ badakigulako lurretik datorkigun material guztiak ez direla alperrik galtzeko
ESKUEZ gure etxeetan sortutako zakarrak, birziklatzeko moduan ipiniko ditugulako

ZAKARRAK: BAKOITZA BERE LEKUAN.
ETA EZ AHAZTU, HONDAKINIK ONENA SORTZEN EZ DANA

AURTEN

Azkenian, hasi egingo gera apartatzen janari hondarrak gure zakarrontzietatik, hori hola eginda % 40a gutxi gorabehera igoko zaigu birziklapena. Aparte, lehendik egiten degunarekin. Ondo egiten badegu behintzat, gutxieneko aurrikusitako neurrira aillegatuko gera.
Gainera auzokonposta egiteko aukera zabalduz gero konpostatu nahi degunontzat, biderkatu egingo dira onurak.
Pozgarria da ikustea gero eta kontzientzia haundiagoa degun ingurumena zaintzeko, eta guztion artean, modu kritikoan aldaketak bere frutua eman dezan ahalegindukoa gera eta, igarri egingo da! Merezi du.

ERABAKIA

Gogora dezagun zein izan zan galdeketan hartutako erabakia. Aparte batuko ditugo janari hondarrak kontenedore marroaian. Eta aparte batuko ditugo birziklaezinezko gauzak kontenedore grisean. Beraz, bi kontenedore berri izango ditugu: MARROIAK eta GRISAK.
Jarraituko dira jasotzen eta ipintzen HORIAN plastiko eta ontzi arinak; URDINEAN kartoi eta paperak; IGLU BERDEETAN botila eta beirazko ontziak; PILAK; OLIOAK… Orduan, lehen egiten denaz gainera, aipatutako janari/organiko guztia batuta, dana, danok ondo eginez, birziklatze tasa txukunera iritxi ezinik ez daukagu!

UDALAK kanpaina on baten bidez espero degu abisatuko digula zela, noiz eta non izango diran aldaketak. HERRITAR DANON IINPLIKAZIOA BEHAR BEHARREZKOA IZANGO DA. AUPA, ANIMO ETA AURRERA.

Gurekin harremantzeko: **mutrikuzerozabor@gmail.com**

MADDI
Zorionak gure Maddi neska ederrari, baitta Ana eta Joni ere!

KATTALIN
Zorionak Kattalin! Gure kabiko txori txikiak 5 urte haundi! Maitxe zaitxugu sorgintxo!

MILA
Zorionak ama, amona, lagun! Muxuak danon partez.

HIRUKOTE
Zorionak hirukote ta primeran pasau! Muxu potolo bana danon partez.

AIMAR
Zorionak abenduko partez! 8 urte handi bete dituzulako. Matxo handi bana Markel eta Eñauten izenean.

ITZIAR
Zorionak amona! segi holakotxe guapa urte askuan.

NEKANE
Zorionak! Hasi duzun urte berria on-ona izan dadila!

ANER eta IKER
Zorionak bikote! Jarraitu hain jatorrak izaten. Muxu bana familia osoaren partez.

HAMAIKA AMETS
HAMAIKA URRATS

Euskeraz ondo izen abizenak idatzita eukitzeko,
aspalditik daukazun gogo hori bete nahi?

Iaz oharraren ondoren batzuk animatu egin ziran eta aldaketa eskatu zuten, horregatik aurten berriz gogorarazi, eta animatu nahi zaituztegu!
MUTRIKUKO ERREGISTRO ZIBILEAN EGINGO DIZUTE.
Erregistroa Udaletxe azpixan dago. Hemen ordutegixa:
Astelehena, eguaztena eta eguena. 9:00etatik 14:00etara
Aurkeztu : Errolda agiria, Jaiotzagiria eta NANaren fotokopia.
Guraso diranak Famili liburua ere bai.

Zalantzaren bat izanez gero, deitu. Telefonoa: 943 607 049

baitxoelkartia@gmail.com

Ramon Arruti, Ines Arruti, Ama Antoni eta Don Rafael apaiza.



Etxe Kalte elkartearen izenean
doluminak eta besarkada bat
Jose Luis Agirreren sendiari.

Matrikue, zenbaki artzaribar

ESKERTZA

une zail honetan, jasotako berotasun,
babes eta samin-agurrengatik
bihotz-bihotzez eskerrak
gure ondoan egon zareten guztioi.

Juani Carballo Bergaretxen familia

ZAINTZAKO BOTIKAK Gaueko 10ak arte

URTARRILA

18tik **21**era Zalduegi
22tik **24**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
25etik **28**ra Lasuen-Elezgarai
29tik **31**ra Apraiz

Gaueko 10etatik aurrera
ELGOIBARREN
(ikus 4. orrialdea)

OTSAILA

1etik **4**ra Burgoa
5etik **7**ra Zalduegi
(zapatu goizian Lasuen-Elezgarai)
8tik **11**ra Apraiz
12tik **14**ra Lasuen-Elezgarai
15etik **18**ra Zalduegi
19tik **21**era Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
22tik **25**era Lasuen-Elezgarai
26tik **28**ra Apraiz
29 Burgoa

MENDI IRTEERA

OTSAILAK 21

DEBA - ZESTOA

URTARRILA - OTSAILA

Urtarrilak 30, zapatua
Santa Eskea

Otsailak 5 eta 6
Iñauteriak

Otsailean
Kamara zikloa

San Miguel ikastetxea

eskola txikia

implikazio handia

2 - 12 urte bitartekoentzat matrikula epea zabalik

urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

www.sanmiguelikastetxea.eus zuzendaritza@sanmiguelikastetxea.eus 943 60 31 95

IKASTOLAREN MATRIKULA KANPAINA

urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

Ezagutu gaitzazu. Ateak zabalik ditugu

.....Euskal irakaskuntzan **HAZI HEZI BIZI**

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa